

<b>Kidegoaren kodea:</b> 590	<b>Espezialitatea:</b> Hezkuntza Orientazioa	<b>Hizkuntza:</b> Euskara	<b>Froga egitearen data:</b> COVID
---------------------------------	---	------------------------------	---------------------------------------

## 1 PROBA - A ZATIA

### **B AZTERKETA**

#### ***Testuingurua:***

D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak dituen ikastetxe bateko orientatzailea zara. Lerro bakarreko ikastetxea da. Ikasturte hasiera da.

#### ***Egoerak:***

**A)** DBH 2. mailan Amaia izeneko ikaslea dago. Tutoreak laguntza eskatu dizu Amaiaren familiarekin egon ondoren. Dirudienez, udan bere gelakideak berarekin sartu dira: irainak eta mehatxuak jaso ditu WhatsApp bidez. Gainera, gelako WhatsApp taldea dago eta aurreko astean kanporatu egin zuten. Hori pasatu denetik Amaiak ez du ongi lo egiten eta eskolara joan nahi ez duela adierazi du.

- Adierazi zer nolako aholkularitza eta esku-hartze neurriak planteatuko zenituzkeen Amaiaren kasurako.

**B)** Hasierako ebaluazioaren ondoren, LH 4. mailako tutoreak laguntza eskatu dizu ikasle batekin kezkatuta dagoelako. Ikasleak Xabier izena du. Tutoreak honako informazioa eman dizu berarekin izan duzun lehen elkarrizketan:

- Bere koadernoak ez da batere txukuna.
- Idazmenari dagokionez, letrak maiz ordezkatzen ditu eta askotan hitzak jaten ditu.
- Irakurketari dagokionez, oso motel irakurtzen du eta tratatzen da. Gainera, ez du irakurtzen duena ulertzen.
- Hizkuntzetako arloetan zailtasun esanguratsuak ditu, baita Natur eta Gizarte Zientzietako arloetan ere.

- Adierazi zer nolako esku-hartzea planteatuko zenukeen Xabierren kasurako.